


TALDEEN FAZILITAZIOA PROGRAMA

Hurbilketa sistemikoa



Fabrika

Fabrika



AURKIBIDEA

Programa

7. or.

Helburuak

8. or.

Gaitasunak

9. or.

Egitura akademikoa

10. or.

Metodologia

12. or.

Nori dago zuzenduta?

13. or.

Antolatzailea eta lantaldea

14. or.

Titulazioa

15. or.

Onarpen- baldintzak

15. or.

Informazioa eta izen- ematea.

16. or.

Fabrika



Fabrikaren Fazilitazio Eskola (FFE) Kultur Eraldaketarako Errendimendu Handiko Fabrika Zentroaren ekimen bat da.


Fabrikaren enpresak eraldatzea dugu helburu, horretarako pertsonak aldatuta, gizarte hobea lortzeko.

Erakundeei kultura eraldatzen laguntzen diegu proiektu partekatu bihurtzeko, beren kultura konfiantzan oinarrituta eta etengabe aldatzen ari den munduak dakartzan erronkei egokituak erantzun eraginkor eta afektiboak emateko gai izan daitezkeen. Fabrikaren adituak gara enpresen kultura eraldaketan, eta ikuspegi sistemikoa eta eraldaketa pertsonala uztartzen dituen metodo propioa jarraitzen dugu. Gure eraginkortasun-ereduak dio edozein lantalderen edo erakunderen arrakasta hiru elementu garrantzirik erantzutearen mende dagoela: kudeaketa-prozesu formalei, pertsonen ongizateari eta asebetetzeari eta helburu baterantz lerratutako emaitzak lortzeko. Eraginkortasun-eredu hori da abiapuntua, metodologiaren oinarria diren hiru elementu horiek hobetzen edo sendotzen laguntzen duten 8 printzipio proposatzeko eta; beraz, eraginkortasuna, afektibitatea eta erakundearen moldagarritasuna.

Fabrikaren Fazilitazio Eskola (FFE) profesionalak trebakuntzan prestatzeko sortu zen eta talde-prozesuak babesteko eta eraginkortasuna handitzeko tresna,

teknika eta gaitasun multzoa entrenatzeko espazio izateko. Bideratzaile baten esku hartzeko modua honako hau da: taldeari edo lantaldeari prozesuak gauzatzeko eta taldeak edo lantaldeak informazioa partekatzeko, arazoak lantzeko, erabakiak hartzeko edo desadostasunak eta gatazkak kudeatzeko espazioetan aplikatzeko arau-multzo berri bat proposatzen dio. Talde-prozesuen funtzionamendua sakonki ezagutzea eta eraginkorrago egiteko horietan esku hartzen jakitea ez da lan erraza; izan ere, liderren gaitasunak gaindituta gera daitezke behin baino gehiagotan. Hortaz, beharrezkoa da hobeto prestatutako pertsonen laguntza izatea, egoera konplexuagoetan edo zailagoetan esku hartzeko gai direnena. Fabrikaren Fazilitazio Eskolan (FFE) profesionalak lantaldeak bideratzeko lanbidean trebatu nahi ditugu behar horiei erantzuna emateko.

Fabrika metodoan adituak diren profesionalen lantalde bat ikasleen zerbitzura dago bideratzaile-kompetentziak garatzeko, gaitasun kognitiboak, emozionalak eta jokabidezkoak barne, baita lantaldeak eta erakundeak ikuspegi sistemikotik ulertzeko eta aztertzeko gaitasuna ere.



Fabrika



PROGRAMA

171

Lantaldeak bideratzea prestakuntza aurreratua da, Fabrika metodoan oinarritua, hori egiten duten pertsonak lantaldeen prozesuak bideratzeko gaitzen ditu. Programak **2 urtean egin beharreko 2 maila** ditu. **Lehenengo mailan lantaldeen prozesuen funtzionamendua ezagutzen, ulertzen eta aztertzen ikasten da**, bigarren mailan lantalde baten **kudeaketa- eta aldaketa-prozesuetan** bideratzeko gaitasunak garatzen dira. Maila horretan, ikasturtea bukatutakoan praktikak egingo dira enpresetan, egiazko esku-hartzeak. Kultura Berriaren **Sistema Bizien teoriak, Eraginkortasun-ereduak eta Printzipioek** osatzen dituzte **programa honen oinarri teorikoak**, bai lantaldeen funtzionamenduaren azalpenean bai horietan esku hartzeko eran.

Trebakuntzak, tresnekin, teknikekin eta gaitasunekin, lantalde guztia zeharkatzen duen informazioaren eta energiaren fluxuaren kudeaketa hobetzen laguntzen du eta agertzen diren erronka berriei erantzun eraginkorragoa, afektiboagoa eta moldagarriagoa emateko gaitasuna hobetzen du. Lantalde batek erantzun eraginkorra emateko **aurki ditzakeen zailtasun nagusiak komunikazio txarrarekin, botere-erlazio ikusezinekin eta desadostasunen (taldea osatzen duten pertsonak duten pentsatzeko eta**

egiteko eraren) kudeaketarekin loturik daude. Autore ugari azpimarratzen dute sistema batek desadostasunak entzutetik eta **errespetutik (eta ez hainbeste boteretik) integratzeko duen gaitasuna dela osasunaren, sormenaren eta eraginkortasunaren oinarria.** Eta, hortaz, **gaitasun hori garatzea eta gaitasun integratzaile horri eusteada liderren eta bideratzaileen arduraren nagusia.**

Hori bai, desadostasunak onartu eta integratu ahal izateko, ez da nahikoa lantaldeen prozesuek nola funtzionatzen duten jakitea, ezta oinarritzko tresna eta gaitasun batzuk izatea ere. Beharrezkoa da **nor garen, nola pentsatzen dugun, sentitzen dugun eta erlazionatzen garen berrikustea ere**, baita askotariko egoeretan gure erantzun automatikoen patroiak zein diren berrikustea ere. Berrikuste hori bereziki esanguratsua da lantaldeen bideratzaile izan nahi duen edonorentzat. Ez egiteak **lanbide honetarako desgaitzen gaitu**; izan ere, ez badugu berrikusten, ezingo dugu batzuetan saihestu pertsona batzuek besteen kontra esaten edo egiten dutenaren alde lerratzea, eta horrek gure lana babestu behar duen **konfiantza eta segurtasun-sentipena suntsituko du.**

HELBURUAK

1

Bideratzaile profesionalak trebatzea, kudeaketa- eta aldaketa-prozesuetan lantaldeak puntualki babesteko eta laguntzeko gaitasunak eta tresnak izango dituzten pertsonak.

2

Lidergotza bideratzaileen estiloranzko bidean lantaldeen ardurak dituzten liderrak eta pertsonak trebatzea, haien erakundeko lantalde-prozesuetan babesteko.



GAITASUNAK

| 9 |

Maila guztiak osatu dituzten pertsonen gaitasun hauek lortuak izango dituzte:

- ✧ Lantaldeak eta erakundeak ikuspegi sistemikotik ulertzea eta aztertzea, pertsonak, erlazioak, prozesuak, egiturak, helburua eta testuingurua biltzen dituen ikuspegitik.
- ✧ Komunikatzeko, erlazionatzeko eta taldean edo lantaldean egoteko modua hobetzeko gaitasun kognitiboak, emozionalak eta jokabidezkoak
- ✧ Talde-espazio desberdinetan bideratzeko eta esku hartzeko ezagutza eta tresna praktikoen praktika: ikerketa kolektiboa, erabakiak hartzea, gatazkak kudeatzea eta talde-kohesioa.
- ✧ Pertsonak eta lantaldeak beren kudeaketa- eta aldaketa-prozesuetan denboran zehar laguntzeko gaitasun aurreratuak, tentsio- eta gatazka-uneetan bereziki.
- ✧ Konfiantzan eta lankidetzan-ahalmenean oinarritutako jarrera positiboa eta sortzailea zailtasunen eta erronken aurrean.



Fabrika

Fabrika

EGITURA EKONOMIKOA

Lantaldeen Fazilitazio programaren trebakuntza-prozesua bi mailatan garatzen da.

	I. MAILA Trebakuntza	II. MAILA Bideratzaile
Dedikazio-orduak	150 ordu	150 ordu
Aurrez aurreko saioak	9 (10 ordu bakoitza)	6 (10 ordu bakoitza) 6 (4 ordu bakoitza)
Online saioak	8 (2 ordu bakoitza)	6 (2 ordu bakoitza)
Lan pertsonala	Gaiak	Egunerokoa Enpresa-praktikak

I. MAILA

Lantaldearen prozesuen funtzionamendua, prozesu horietan pertsonak duten rola, eta prozesuak eta pertsonak asmo kontzientetik aldatzeko mekanismoak ikuspegi sistemikotik ezagutzen eta ulertzen dihardu bereziki.

I. mailako moduluak:



II.MAILA

Aurreko mailan barneratutako ezagutzetan sakontzen da, lantalde-prozesuak bideratzeko beharrezko teknikak eta gaitasunak espazio seguruan eta gainbegiratuan praktikatzen dira, eta bideratzailearentzat eta bideratuarentzat bideratzeak esan nahi duenaren kontzientzia handitzen da.

Bigarren etapan praktikak egingo dira enpresan, inguru errealetan esku-hartzeak eginda.



METODOLOGIA

E Programa 2 mailatan bereizten da eta prestakuntza integralerako hiru ezagutzeekin erlazionaturiko helburu eta gaitasun desberdinak lantzen dira:

FORMACIÓN INTEGRAL

JAKITEA

Teoriak, ereduak eta kontzeptu garrantzitsuak.

IZATEN JAKITEA

Lantaldeak bideratzeko eta laguntzeko jarrerak, gaitasun pertsonalak, etika eta balioak.

EGITEN JAKITEA

Jardun onerako teknikak eta gaitasunak.

Maila bakoitzean, edukiak, esperientziak eta prozesuak ahalik ondoen aprobetxatzeko, barneratzeko eta integratzeko 5 fasetan egituraturako pertsonan oinarritutako ikasketa-metodologia erabiltzen da:


FASEAK	I. MAILA Trebakuntza	II. MAILA Bideratzailea
1. Moduluaren aurretik	Materialak irakurtzea eta/edo berrikustea.	Materialak irakurtzea eta/edo berrikustea.
2. Moduluan zehar	Edukiak finkatzeko eta ezagutza barneratzeko ariketak, jolasak eta beste jarduera dinamiko batzuk.	Ikasketa-taldearen beraren zenbait prozesuren bideratzaile-praktika edo taldeko pertsonak edo formatzaileek ekarritako kanpoko kasuak (rol playing).
3. Lan ez-presentziala BOGA	Aurrez aurreko saioan jasotako edukiak ezagutzeko eta ainguratzeko gaiak.	Aurrez aurreko azken saioan gertatutako esanguratsuenari buruzko iruzkinen eta gogoeten egunerokoa.
4. Online topaketa	Partaideek zalantzak argitzeko eta esperientziak partekatze online topaketa.	Partaideek zalantzak argitzeko eta esperientziak partekatze online topaketa.
5. Praktiak		Irakasleek aurretiaz gainbegiraturako benetako esku-hartzeak eta ondoren taldean iruzkinduak, ikasketak finkatzeko.



NORI DAGO ZUZENDUTA?

| 13 |

- Pertsonak, prozesuak eta talde, lantalde edo erakunde osoa bilduko dituen eta kontuan hartuko dituen ikuspegi sistemikoarekin lantaldeen prozesuak bideratzen profesionalki lan egin nahi dutenei.
- Zuzendaritza-, eta lidergotza-postuak dituzten eta beren enpresan edo erakundearen aplikatzeko lantaldeak bideratzeko gaitasunak ikasi edo hobetu nahi dituztenei.
- Lantaldeen eta erakundearen funtzionamendua sistema bizien ikuspegitik ezagutu nahi duten erakunde-aholkularitzako profesionali eta ideia horiek beren lanean txertatu nahi dutenei.
- Edonolako taldeekin lan egiten duten eta erlazorako, komunikaziorako eta taldeen erabilerarako dituzten gaitasunak hobetu nahi dituzten profesionali.



ANTOLATZAILEA ETA LANTALDEA

141

Lantaldeak Bideratzea Fabrika Fazilitazio Eskolak sustatutako prestakuntza da, Fabrikaren babesarekin.

Irakasleak adituak dira enpresa munduko, hezkuntzako, kiroleko edo administrazio publikoko lantaldeen prozesuak bideratzen:

IRAKASLEAK



in

GOTZONE MIGUEL. Fabrika Metodoak egiaztatutako bideratzailea. Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbidean lizentziatua. Lan-harremanak masterra eta Erakundeen Ongizaterako Zuzendaritza Estrategikoa masterra. Mondragon Unibertsitateak egiaztatutako coach ontologikoa. Coach gisa ikaskuntzan sakondu zuen prestakuntza Lantaldeen Coachingera (Emana Formación), Coaching Sistemikora (Georg Senoner, Anton de Kroon, Jan Jacob Stam) eta Bideratze Sistemikora bideratuta. Belbin Lantalde Roletan egiaztatua. Mindfulness irakaslea, Baraka Integralek ziurtatua. 20 urte baino gehiago aritu da sektore desberdinetako enpresetako pertsona-kudeaketaren arduradun gisa. Eta zuzendaritza-lantaldeen eta tarteko zuzendaritza-lantaldeen bidelagun izan da errendimendu kolektiboaren eta kideen arteko erlazio pertsonalen hobekuntza-prozesuetan.



JON KARLA LIZEAGA. Fabrika Metodoak egiaztatutako bideratzailea. Atletismoan espezializatutako Gorputz Hezkuntza egin zuen Madrilgo INEFen. Enpresa coaching ontologikoaren ziurtagiria eta Gorputzaren eta Mugimenduaren ziurtagiria Newfield Networken eskutik. Bakarkako eta Taldeko Coaching Aurreratua formakuntza eta Erlazio eta Erakunde Sistemetan Trebakuntza. Jon Karlak Kirol Kontseilu Gorenarentzat eta Real Sociedadentzat lan egin du eta Espainiako talde olinpikoaren parte izan da. Era berean, maila goreneko kirolarien bidelagun izan da 25 urtean zehar, besteak beste, Txema Olazabalena, Tania Elosegirena, Naroa Agirrerena eta Iker Fernándezena; golfeko, txirrindularitzako, futboleko, eskubaloiko, snowko, belaontziko eta atletismokoena ere bai.

KOORDINATZAILEA



in

JOSÉ LUIS ESCORIHUELA. Fabrikaren I+G zuzendaria. 20 urteko esperientzia baino gehiago duen aholkularia, erakunde bizien, lantaldeen eta lidergo prozesuen bideratzailea eta formatzaila. Aditua sistema bizien teoriarik eta giza erakundeetan aplikatzen. Matematikan (Zaragozako Unibertsitatea) eta Filosofian lizentziatua (Paris-Sorbona Unibertsitatea), Gatazkak konpontzen Nazioarteko Graduondokoa (UOC).

TITULAZIOA

Fabrikaren ziurtagiria, hau egiaztatzeko:

» **I. maila**
Lantalde-prozesuetan gaitzea

» **II. maila**
Lantaldeen prozesuen bideratzailea.

ONARPEN BALDINTZAK

- ☐ Motibazio-gutuna.
- ☐ Lantaldeekin lan egin izanaren 3 urteko gutxieneko esperientzia justifikatzea.
- ☐ Onartze elkarrizketa.



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA

ORDUTEGIA:

Ostegun arratsaldea: 16:00 – 20:00
Ostiral goiza: 9:00 – 15:00.

MODALITATEA:

Aurrez-aurrekoa.

PLAZAK:

Mugatuak.

IZEN-EMATEA: I. Maila: 2.950 € + BEZA

II Maila: 3.500€ + BEZA

* Banakako aukerako tutoretza: 100 € / ordua.

* II. Mailako prezioa berrikusteke.

ORDAINKETA-MODUA: % 50 izen-ematea formalizatzean. % 50 ekaina bukaeran.

% 10eko deskontua abenduaren 31 baino lehen ordainketa bakarra eginez gero.

DATAK: hasiera 2024ko otsailaren 15ean.

Urtarrila

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4

Otsaila / 1. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	1	2	3

Martxo / 2. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
26	27	28	29	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Apirila / 3. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5

Maiatza / 4. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
29	30	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31	1	2

Ekaina / 5. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
27	28	29	30	31	1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19			22	23
24	25	26	27	28	29	30

Uztaila / 6. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4

Abuztua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	1

Iraila / 7. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
26	27	28	29	30	31	1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	1	2	3	4	5	6

Urria / 8. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
30	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	1	2	3

Azaroa / 9. Modulua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
28	29	30	31	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	1

Abendua

Al.	Ar.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
25	26	27	28	29	30	1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31	1	2	3	4	5

● Aurrez aurreko saioak

● Saio ez presentzialak

Harremanetarako informazioa:

Fabrika Fazilitazio Eskola Miramon
pasealekua, 181
20014 Donostia
Tlf: 943 309 030

Argi Ezkurra: argiezkurra@fabrika.eus





www.fabrika.eus